19. Megaegiturak: Hiria etxe handi gisa

1. Megaegiturak, arkitektura eta hirigintzaren alorretan, Ralph Wilcoxon arkitektoaren 1968ko definizioaren arabera, tamaina handiko egiturak dira, handitasunok egitura barna hiri-funtzioak garatzen ahalbidetzen duela, ezaugarri jakin batzuk izanik:
    - Bi zati nagusiz osatzen dira: egitura-euskarri handia eta bertara konektatzen diren unitate modular txikiak.
    - Egitura-euskarriaren bizi-iraupena unitate txikiagoena baino luzeagoa izan ohi da.
    - Zabalgarriak edo hedagarriak dira.

2. Megaegituren sorreraren testuingurua: 1926an Robert Hutchings Goddardek erregai likidoko lehen kohetea asmatu zuen; 1957an errusiarrek historiako lehen satelite artifiziala espaziora bidaltzen dute (Sputnik I); urte berean lehen izaki biziduna bidaltzen dute espaziora, Laika txakurra, alegia, Sputnik II satelitean; asmakizunok *Zientzia Fikzioa*ri bultzada ematen diote, aldizkarien bidez hedatzen dena (*Amazing Stories*, *Popular Mechanics*, eta abar); Megaegitura kontzeptua garai eta esparru hartan jaio zen, tamaina handiko eraikuntza artifizialak izendatzeko (espazio-estazioak, espazio-igogailuak eta abar).
    - Arkitekto eta ingeniariek etorkizuneko etxea diseinatu zuten: Buckminster Fulleren Dymaxion (1927) eta Wichita (1946) etxeak; Monsanto Chemical konpainiaren etorkizuneko etxea Disneylanderako (1947); Matti Suuronenen etorkizuneko etxea (1968).
    - Etorkizuneko hiria ere irudikatu zuten: Buckminster Fulleren Manhattango kupula (1960), *Cloud Nine* izeneko proiektua (1958) eta *Tetra* eta *Triton* hiriak (5.000 biztanlerako proiektatuak, 1966); Paolo Soleriren Arcosanti hiria (5.000 biztanlerako proiektua, Scottsdale, Arizona, 1956-…).

3. Megaegitura utopikoak (hirigintzaren eskalakoak):
    - Situazionismoa 1952-1972 urte bitarteko mugimendu filosofiko eta artistiko antikapitalista, kritiko eta surrealista izan zen, besteak beste, hiria jolastoki gisa proposatzen zuena. Burua Guy Debord izan zen, hiritarrak ikusle soilak izatearen aurka zegoena. Berarengan eragin handia izan zuen 1952an ikusitako plano batek, Chombart de Lauwek egina, zeinetan neska paristar batek 1950ean egindako ibilbide errepikagarriak erakusten ziren. Hiria ezagutzeko *deriba*ren metodoa proposatzen zuen, zeinetan bakoitzaren emozioek gidatzen zuten norberak hartutako hiri-ibilbidea; ondoren, bizi izandakoa plano batean laburtzen zen, mapa psikogeografikoa garatuz. Situazionisten taldeko Constant Nieuwenhuis holandarrak megaegitura utopiko bat proposatu zuen, New Babylon deitua (1959-1971), mundu mailako hiri-nomada bat zena, etengabeko zaharberritze prozesuan, behin-behineko bizitokiak eskeiniz. Plataforma mugikorrak zituen, sektoreetan banatuak giro ezberdinak sortzen zituztenak (sektore horia jolaserako zen), eta laberinto bat osatzen zutenak, hiritarrengan desorientazioa eta *deriba* bultzatzeko.
    - Yona Friedman, arkitekto hungariarrak beste megaegitura batzuk proposatu zituen, *hiri mugikorra* eta *hiri espaziala* izenekin, 1956 urtetik aurrera, Bercy, Tunez eta Parisen, besteak beste.
    - Archigram taldeak beste megaegitura utopiko batzuk diseinatu zituen 1961-1974 urte bitartean. Taldea Peter Cook, Michael Webb, Ron Herron, Warren Chalk, David Greene eta Dennis Crompton arkitektoek osatu zuten, batez ere aldizkari bat argitaratzeko asmoarekin. *Plug-in* edo lokailu-hiri ezaguna proposatu zuten, Ingalaterra osoa zeharkatzen zuena, 75 etxebizitza/Ha-ko dentsitatearekin. Hiriok euskarri-armazoi nagusi bat zuen, garabien bidez etxebizitza modularrak eta bestelako unitateak bertan txertatzen zirelarik.

4. Megaegitura pragmatikoagoak (arkitekturaren eskalakoak):
    - Japongo *metabolistak* deituak izan zirenak (1958-1972) pragmatikoagoak izaki, megaegitura batzuk eraikitzea lortu zuten. Arata Isozakiren Mordo-hiria, Kisho Kurokawaren Helize-hiriko dorreak eta Nagakin kapsula-dorrea (1972), Kiyonoru Kikutakeren Itsas-hiriko dorreak eta Osakako expoko dorrea (1969), eta Kenzo Tangeren Komunikaziogunea Kofun (1964-66) eta Shizuoka Press dorrea Tokyon (1967).